

IRAGARKI MERKEAK

(943)469022

HIKA ANTZERKI TALDEA

"Eta ohea egin gabe"
(kalekoa)"Chaplin tropela"
(barnekoa)

Tfn.: (943) 43 00 10

kukubiltxo



TXONTXONGILOAK

☆ "Jalgi hadi
dantzara"☆ "Umeak gara!
eta zer?"

☆ "Orreaga"

TFNA.: 94 / 455 83 66
(JAIO)

Petrikiloa

✱ SORIASIA
✱ EKZEMAKLarruazaleko erita-
sunak oro, etab.

TEL.: (943) 800492

34x17mm

EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

34x37mm

34x37
MODULOEGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.34x37ko
BI MODULOEGUN BAT 3.360pta/168l.
ASTEBETE 16.640pta/832l.
BI ASTE 28.800pta/1.440l.
HILABETE 40.400pta/2.200l.

HAMABOST TABERNA

Konstituzioa, 15 DONOSTIA

Musikaren magia hedatu zen Baionan Beñat Axiarirekin

Lehengo larunbatean lehen aldia zen Baionako Antzokian aritzen zela

Emanaldi berezi bezain miresgarria eman zuen Beñat Axiarik bere taldearekin, Baionan, larunbat arratsean. Zuberoko basa ahaideetarik hasiz gaurko musikaren kreaio berriekin, espresabide sakonak azaldu zituen soinuari guztiz trebeekin.

L. ETXEZAHARRETA / BAIONA

Bere Baionako lehen emanaldia kari, Beñat Axiarik azken urte hauetan lantu musikak azaldu zituen, bere ohiturazko lagunekin. «Lagunen arteko musika» definitzea maite duen hura barruko indar sakonen bidez agertu zuen, bere abots guztiz harri-garriarekin. Sentsibilitate handiz, isiltasunetik leherketa eta fusio aberatseneraino ibili zen.

Ikusgarriaren lehen zatian, hiru suite eman zituen. Lehenean 'arra-noa' basa ahaidetik joan zen, gero, Atxaga, Josean Artze eta Paul Eluarden testuak erabiliz, fusio poetiko bat lortu zuen. Ninh Le Quan perkusiolararen trebetasun handiz eta Dominique Regef bere biela errotadunarekin soinuaren mugetara joanez, Michel Doneda klarinetarekin arnas minbera bat emanez, Beñat Axiarik osatzen zuen laukote espazio betetzailer bat.

Italo Calvinoren 'hiri ezin ikusietako' zati baten gainean Ninh Le Quanen 'Ibiltari' musikatik ondoren Barkoxeko Etxahunen 'Ahaide delizius huntan' kantatu zuen Beñatek.



Axiari eta bere taldea musika berritzaile azaldu ziren

L. ETXEZAHARRETA

Blues baten mina zekarten musika tresnek poeta madarikatuaren itzal handia lagundu zuten.

Bigarren zatia zen magia Soler gitarrajoleak gehitu zuen, Michaudetik Lorcarainoko bidai batean. «Bidaiari erromesa, lasterketa, hatsanka, ametsa» nahi ziren agertu «dorreta-

rik begira dagoen heriotzari». Soler eta Donedak moldatu inprobisazioak denak harritu zituen. Brechten 'Lilurarik ez-en' interpretazioa gitarra eta abotsez eta azken zatia «Ereiten eta uztia egiten tematzan direnei» eskainiak arrats magikoaren osatzaile ederrak izan ziren.


Chema Elexpururen azken bi urteotako koadroak Aritza galeria bilbotarrean

BILBO

Chema Elexpuru grabatugile eta pintore bilbotarraren azken bi urteotako koadroak jasotzen dituen erakusketa bat zabalduko da gaur, arratsaldeko 8etan, Bilboko Aritza galerian (Marqués del Puerto kalean). Ekainaren 12a arte izango da zabalik agerraldi hau.

Chema Elexpuru 1949an jaio zen, Bilbon. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Valencian eta Bilbon. Santanderreko La Bisagra galerian egin zuen bere lehen erakusketa, 1978an, eta harrez gero ia-ia urtero erakutsi izan ditu bere lanak, Donostian eta Bilbon batik bat, baina baita Iruñea, Durango, Deustu eta Algortan ere.

Grabatuak dira Elexpururen lanik ezagunenak, baina koadroak ere ugari pintatu izan ditu. Aritzan ikus daitezkeen koadro guztiek antzeko egitura eta jitea dute. Atzekalde homogeneo baten aurreko testura indartsuak erakusten dituzte. Erabat abstraktuak dira Elexpururen azken lan hauek, figuratibismo zantzurik



Elexpuru grabatugileak pinturak bildu ditu oraingoan.

batere gabeak. Edonolako zeinuen agerpena oso ahula da Elexpururen lan hauetan, eta ez daude oso ondo definituak.

Erakusketako koadroak liburu batean jasota daude, Francisco Javier San Martinek idatzitako hitzaurre batek aurkezturik.

LABURREAN

BIDEO lehiaketako lanak Nafarroako Museoa

Atzo hasi ziren Nafarroako Museoa 'Bideogintza arloko sormenari laguntzak' izeneko lehiaketan aurkeztu diren lanen emanaldiak, osteguna arte iraungo dutenak. Bideoak arratsaldeko zazpi t'erdietan ikusi ahal izango dira areto nagusian. Laguntza hauek, gutxienez 15 minutuko iraupena duten fikziozkoak edo arte-bideoak bultzatzea dute helburu, eta lau sari emango ditu Kultura Zuzendariaren Batzordeak, 750.000 pezetaok.

MANHATTAN Transfer taldea Gazteizko jazzaldian izango da

Estatu Batuetako 'Manhattan Transfer' taldeak beteko ditu uztailaren 15etik 19ra bitartean iraungo duen XV Jazz jaialdiko klausurako ekitaldiak. Duela pare bat aste antolatzaileak programaren berri eman bazuten ere oraingo honetan jadanik finkatu dituzte azken orduko prestakizunak. Talde honetaz gain aurtengo edizioan parte hartuko dute ere Oscar Peter hirukoteak, Herbie Hancock eta Jazz Futures gazteak.

GASTEIZEN ere aurkeztu dute Imajina Ezazu lehiaketa

Hispano Americano Banketxeak zuzendari erregionala den Andoni Etxeberriak aurkeztu zuen atzo Gasteizen 'Imajina Ezazu Euskadi' lehiaketaren laugarren edizioa. Pintura, ipuinak, argazkigintza eta olerkigintza dira sailak, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Aurtengo lehiaketaren berri jaso dute Hego Amerikako Euskal Etxekoek, bertakoek EAEn gertatzen diren gertakizun kulturalak gertuagotik jarrai ditzaten.

KUROSAWAREN azken filmeak txaloak jaso zituen Cannesen

Lars Von Trier zinegile daniarraren 'Europa' eta Akira Kurosawa japoniarraren 'Abuztuko Rapsodia' filmeek txalo ugari jaso dute Canneseko Zinemaldiaren berri jasotzen ari diren kazetariengandik. Bi filmeok Bigarren Mundu Gerraren ondoko giroa ematen dute, Alemanian kokaturik lehenengoak, Japonian bigarrenak.